

EAJ-REN JARRERA. EAJko EBBk urteroko bilera egin du, eta autogobernua eta Alderdien Legea izan ditu ahotan. Arzalluzek dioenez, EAJk «jokoaren arauak» errespetatzen jarraitzen du, baina hori alda daiteke, Madrilen borondatearen arabera.

Estatutua bete ezean, «joko arauak» kolokan jar ditzaketela dio Arzalluzek

Espainiako Estatuaren arauak «Estatutuaren edukiak betetzearen truke» onartu zituztela dio, eta ez direla bete



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

EAJko Euzkadi Buru Batzarraren atzoko bilera, Donostian. Ibarretxe, Egibar, Arzalluz, Juaristi, Aristondo eta Atutxa izan ziren, besteak beste.

po inor baldin badago, hori Espainiako Gobernua da».

EAJren EBBk urteroko bilera egin zuen atzo Donostian, eta Arzalluzek prentsurrekoa eman zuen, Egibar lagun zuela. Antzekoa esan zuten biek, batak euskaraz eta besteak gaztelaniaz. Komunikabide andana joan zen, eta Egibarrek «propaganda makinaria abian jartzearekin» lortu zuen ikusmin hori.

Alderdien Legea hizpide

Hilaren 26an Espainiako Kongresuan egingo den ezohiko plenora joan eta Batasuna legez kanpo uztearen kontra bozkatu-ko dutela berretsi zuten Arzalluzek eta Egibarrek. «Garbi geneukan hasieratik». Bi arrazoi aipatu zituzten: «Adierazpen askatasuna eta elkartzeko eskubi-dea» urratu egingo direla, eta «bakea eta elkarrizketa urrundu». Batasunari EAJk «estrategia propioa» duela eta errespetatzeko eskatu zioten. Halaber, Arzalluzek «behar bezalakoak zirela uste genuen alderdi batzuk pentsatzen dutena ez esatea» gaitzetsi zuen.

Egibarren hitzetan, «legearen aplikazioa ikusita, epaia idatzita dago». Komunikabide eta politikari askok Espainiako Auzitegi Gorenaren epaia zein izango den ez dutela zalantzan jartzen dio (legez kanporatzearen aldekoa), eta «presio» horrekin botere judizialak aurrez «idatzita» duela epaia. Horregatik, «arazoa gero eta gaitzotua dagoa» dagoela uste du Egibarrek. Arzalluzek, berriz, Batasuna «klandestinitatean egoteak» egoera okertuko duela nabarmendu zuen: «Polizia asko erabili arren, indarkeria gehiago ez ezik istilu gehiago ere izango da».

Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuko presidentearen «estrategiak porrot» egingo duela ere esan zuten. «Bere ardura zurrizko, Estatuko erakunde guztiak berarekin arrastaka eramaten ari da Aznar», Egibarren ustez. «Gero joan egingo da, arazoa konpondu gabe utzita», Arzalluzen esanetan, eta hori da «presioen» arrazoiak.

ETA-REN AGIRIA

Egibarrek dio «ETAk Batasunaren legez kanporatzea nahi» duela

Beste hainbat alderdiren gisan, ETAk herenegun kaleratu agiria izan zuen ahotan EAJk ere. Joseba Egibarrek dioenez, «ETAk bere botoa eman du: Batasunaren legez kanporatzea nahi du». Guztien kontra «mehatxuak» argitaratu izana da horren erakusle, haren ustez; «argi dago» Batasuna legez kanpo egotea «bere aurreikuspenetan» dagoela. ETAk «Alderdien Legearen bultzatzaileekiko neurriak» hartuko dituela dio agirian.

Xabier Arzalluzen esanetan, ETAk «ez zeukan zertan sartu gai horretan», eta idatzi horretan jarri duenarekin «legez kanporatzearekin ados» dagoela erakutsi du. Batasuna legez kanpo uztea «ia-ia inposatu» egin zuelakoan, testuari «zoritzarrekoa» eta «lotsagabea» iritzi zion. Hark dioenez, «ezin da desberdin pentsatzen duten guztiak mehatxatu», eta «heriotza mehatxuekin» ez du ezer lortuko: «Ez dugu iritziz aldatuko»; Espainiako Kongresuko bozketaz ari zen. ETAREN agirian «biktimismoa eta borroka gogo» ikusi zituen Arzalluzek.

Idoia Etxeberria | DONOSTIA

Xabier Arzalluz EAJko EBBren presidentearen arabera, jeltzaileek ez dute asmorik «jokoaren arauak hautsiko lituzketen birtartekoak» erabiltzeko Gernikako Estatutua garatzeko, baina, Madrilek azken 23 urteetako jarrera erakusten badu, litekeena da zerbait pentsatzea: «Zertan ari gara haiek gordetzen ez dituzten arauak gordetzen?, esateko unea ere irits daiteke». Izan ere, arau horiek «Estatutua betetzearen truke» onartu zituztela dio, eta Espainiako Gobernuak «legea zapaldu» egin duela: «23 urteren ostean, Estatutua zisko eginda dago».

Eskuduntzen transferentzia garrantzitsua da Arzalluzen iritzirako, baina, are garrantzitsuagoa haren «etorkizunerako birtualtasuna», garapen aukera;

«Bestela, ez genukeen onartuko». Ez zuen argitu nahi izan Eusko Jauriaritzak eta EAJk Estatutua betetzeko zein «estrategia» erabili asmo duten, baina «legea eta herriaren borondatea» aintzat hartuta «gauza asko» egin daitezkeela esan zuen.

«Garaiz kanpo bizitzea da Estatuturik gabeko nazio bati autodeterminazio eskubi-dea ukatzea». Arzalluzek ez du ulertzen Eusko Legebiltzarrean onartutako Autogobernu Txostenak «Madril aldean sortu zuen harridura». 1977an aldarrikatutako bera dutela eskari azaldu zuen, eta 23 urtean bete ez dena «inoiz beteko duten pentsatze-ko» bi hilabete eman dizkiotela Madrili. Joseba Egibar EAJko eledunak Espainiako Gobernuak «izugarrizko iruzurra» egin duela uste du: «Legez kan-